

## DORRETXEAK

Dorretxeak funtsean baserri-leinuak, Ahaide Nagusiak, bere familia zabalak, hiru belaunaldietako senideak -hala gertukoak nola urrunekoak- bizitzen ziren etxebizitzak ziren. Sabai berberak eta interes ekonomiko, erlijioso eta sozial berdinak lotzen zuten jendetza hau dena. Dorretxeak Ahaide txikientzat nobleen erreferentea ziren; hauek dorretxetik sozial eta gerra-kontsignak jasotzen zituzten, eta bere babes, armarri eta blasoiarekin estaltzen ziren. Dorretxeak, azkenik, lan indar multzo horren, etxearen alde borroka egiten zuten besoen, nagusiaren partez baserri-leinuko buruzagiaren bidez transmititzen ziren aginduak onartzen zituzten jarraitzaile eta ogipekoen begi-puntu ziren.

Dorretxeek bandoen historiaren kronologia berdina dute, horregatik habitat honen hazkundearen une zentrala XIII. mendean kokatu beharko litzateke.

Dorretxeen sorrera mugimendua, hasieran baserrien historia hutsa da, bideen kontrolerako, lurraldearen defentsako, etab. Gero, hiribilduen jaiotzarekin, estreinatu berri zen hiri-kontraboterearen aurkako gune bihurtu ziren.

Ahaide Nagusiak ez zituen zergak ordaintzen eta ahaidetasun loturen bidez loturiko zenbait auzotar berarengana iristen ziren (odoleko loturak). Gehienetan, dorrea horien guztien jatorrizko orubea izaten zen, klanaren jatorria, eta den-denek horrekiko lotura onartzen zuten. Dorrearen jabea “nagusia” zen, orubea belaunaldiz belaunaldi jarauntsi zuena (maioraz-

koaren eran). Horrek bere aldekoak (ondokoak) babestu behar izaten zituen, horiek Ahaide Nagusizat onartzen baitzuten.

Dorrea militarren eraikina izan zen, leku estrategikoetan edo goraguneetan, bidegurutzeetan, hiribilduen inguruetan edo barruan edo burdinolen edo erroten ondoan kokatuak. Haiek beraien jabeak zituen ekoizpide edo errentabideen ordezkagarri ziren.

Dorretxeek hitz egiterakoan hasierako lurralde-bereizkuntza bat seinalatu behar da: lurraldea bandoetan (oinaztarrak eta ganboatarrak) banatzen dutela irizpideren batekin eta nolabait banderizo batzuen lehentasuna ere adierazten dutela besteen gainean. Baina bereizkuntza honek XV. mendeko bigarren erdian desagertzeko joera du, hain zuzen gureganaino iritsi diren dorretxeak eraikitzen edota berreraikitzen hasten direnean.

Gerraren denbora nahasiak amaituta, dorretxeak zulo zabalak irekiz joan ziren bere paretetako mihisean; almenak desagertu ziren eta erronda-paseoa teilatu batez estali zen.

Dorreak, bada, aldaketa askorekin iritsi dira gure garaira, eta aldaketok guztiz desitxuratu dituzte gerrako dorreen ezaugarriak. Lehenengo aldaketak Enrike IV.aren garaian egin ziren, baina are gehiago nabarmendu ziren Errege Katolikoaren erregetzatik aurrera.


Etorkizunean eman zitzaizen erabileraren arabera, dorreetan egindako aldaketen eraginez dorreok jauregien ezaugarriak hartu zituzten (bai nekazaritza estiloko jauregiak edo bai bien arteko nahastea).

Gaur gure dorretxeei bisitalditxo bat egingo diegu, baina gure begiek euren xehetasun eta bitxitasunetan pausatuko ditugu.

*Juan Mari Arrizabalaga*




*01 Jauregi baserria. Zerain*




*02 Atxega jauregia. Usurbil*




*03 Lili jauregia. Zestoa*



*04 Zabala jauregia. Ordizia*




*05 Etxebeste etxea. Hondarribia*



06 Aranzate dorretxea. Irun





*07 Idiakez jauregia. Tolosa*




*08 Legazpi dorretxea. Zumarraga*



*09 Balda dorretxea. Azkoitia*



*10 Torre Luzea. Zarautz*




*11 Idiakez jauregia. Tolosa*



12 Elorregi baserria. Legazpi



*13 Jauregi baserria. Zerain*



*14 Mendozako gaztelua. Mendoza*





*15 Olaso dorretxea. Bergara*



*16 Balda dorretxea. Azkoitia*